

# ~ Hitzordu ~

## Liburu Gaztea Literatura Saria 2006-2007



Urtero bezala Galtzagorri Elkarteak Liburu Gaztea Literatura Saria antolatu du. Aurreko urteetan bezala Gipuzkoako Foru Aldundia izan du babeslea proiektu hau aurrera ateratzeko.

Helburu nagusia honako hau da: sari honen bidez, gazteen irakurzaletasuna sustatzeaz gain, beraiek epaimahaikide izatea bultzatu nahi da. Alegia, euren iritzi eta gustuetara hurbildu nahi dugu.

Sari honetan parte hartuko dutenak Gipuzkoako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zenbait ikasle izango dira.

Liburu Gazteak duen prozedura erraz-erraza da. 12 izenburuz osatutako zerrenda bat bidaltzen zaie eskola edo institutu zenbaiti, adin talde bakoitzeko (DBH1, DBH2, DBH3 eta DBH4) 3 liburu. Liburu hautaketa hori Galtzagorri Elkarteak izendatutako aditu batzordeak egin du.

Liburu hautaketan parte hartu duen hautaketa batzordea:

- JOANES URKIXO (idazlea)
- MAIDER KALONJE (irudigilea)
- LUPE LEKUONA (irakaslea)
- ASUN AGIRIANO (liburuzaina)
- RUBEN RUIZ (irakasle eta idazlea)
- JOSU JIMÉNEZ (euskararen irakaskuntzarako baliabide zentroko teknikaria)
- JUAN ANTONIO SANABRIA (irakaslea)
- TXARO ALZA (irakaslea)
- MIGEL ASIAIN (irakaslea eta Galtzagorri Elkarteko lehendakaria)
- Lekaroz Institutuko euskara mintegia (ordezkariak: Cristina Fernandez, Alaine Goñi eta Marina Vicente irakasle eta ikasleak)
- LEIRE UGALDE (pedagogo eta Galtzagorri Elkarteko idazkaria)

2005. urtean euskaraz argitaratutako liburuen artean egin da hautaketa, nahiz jatorriz euskaraz sortuak, nahiz euskarara itzulitakoak. Zerrendatik kanpo geratu dira liburuen berrargitalpenak.

Aurreko batzordeak hautatuko liburuak ikasleek irakurri beharko dituzte eta beraien botoen bitartez liburu bozkatuenei sariaren ohorea emango diote.

Honako hauek dira sariaren oinarriak:

1. Ikastetxean, parte hartzen duten ikasle guztiek izango dute botoa emateko aukera.
2. Ikasle bakoitzak dagozkion 3 tituluak irakurriko ditu.
3. Ikasle bakoitzak irakurri dituen 3 liburuen artean gehien gustatu zaiona aukeratu beharko du. Horri emango dio botoa. Irakasleak egin beharko du ikastetxean parte hartu duten ikasleen boto zenbaketa eta Galtzagorrira igorri.
4. Jasoko diren botoen artean puntu bilketa egingo da, bozkatuena izan den liburua finkatzeko.
5. «Liburu Gaztea Saria»n parte hartzen duen ikastetxe bakoitzak epaimahaikide izan direla ziurtatzen duen agiria jasoko du. Horretaz gain, parte hartu duten eskola guztien artean 2 liburu lote zozketatuko dira eta 5 eguneko bidaia bat 30 pertsonarentzat.
6. Bozkatuen izan diren liburuen idazleek aipamen berezia eskuratuko dute, horretarako egingo den sari-banaketa ekitaldian.
7. «Liburu Gaztea Saria»ren irabazlea 2007 urteko ekainaren lehenengo asteetan ezagutaraziko da, sari-banaketa ekitaldian. Sari-banaketa ekitaldia prentsz iragarriko da.




# “ LIBURU GAZTEA “

Literatura Saria 2006 - 2007



## DBH1




## DBH2



## DBH3



## DBH4



Liburu Gaztea 06-07: hautatutako liburuak

**DBH 1:**

- *Nicolas txikiren historia ezezagunak 1.* Gosciny&Sempé. Elkar
- *Oraindik badira piratak heriotzaren itsasertzean.* Consuelo Jiménez. Itzultzailea: Jose Antonio Sarasola. Ibaizabal.
- *Metro bateko letrak.* Julen Gabiria. Elkar

**DBH 2:**

- *Jara, bikiak eta bikoteak.* Jasone Osoro. Zubia.
- *Itzal suntsigarrien gaua.* Agustín Fernández Paz. Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni. Pamiela.
- *Maitagarrien hiru ipuin.* Gustavo Martín Garzo. Elkar

**DBH 3:**

- *Kixmi Elurpean.* Arrate Egaña. Elkar.
- *Portobelloko argazkia.* Vicente Muñoz. Itzultzailea: Aitor Arana. Ibaizabal.
- *Erregearen mezularia.* Toti Martínez de Lezea. Zubia

**DBH 4:**

- *Kale gorrian.* Robert Swindells. Elkar.
- *Bollikaoak zugatik.* Pasqual Alapont. Elkar.
- *Bidaia munduaren amaierara.* Hening Mankell. Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal. Erein.